



MARCELO SALINAS / EPA

FARCEko kide bat (kalez jantzita) Pastranaren soldaduekin hizketan atzo San Vicente de Calguanen.

Olga Lucia Marin

• FARCEKO NAZIOARTEKO ARDURADUNAA •

«Kolonbian sakoneko aldaketak eginez baizik ez da etorriko bakea» • 10-11



Frantziak Ipar Euskal Herriaren garapena «izozturik» duela salatu du ABk

■ Lurralde Eskemaren garatzeak «porrot» egin duela azpimarratu dute • 6

'Marero' hondoratu zela frogatzen duten arrastoak aurkitu dituzte Arroxelan

Baltsa bat agertu da bilatutako eremutik 90 miliara

■ PASAIAKO Marero arrantzontzia hondoratu zela baieztatzen duten aztarnak -baltsa bat eta botila bat, hain justu-, aurkitu dituzte Arroxela inguruan (Frantziako kostaldean), bilatutako eremutik 90 milia ingurura, itsasertzetik 20 miliara. Okeanos arrantzontziak aurkitu zituen asteartean arrasto horiek, baina atzo arte ez zuten baieztatu ahal izan Marero-koak ziren ala ez. Jaime Tejedor

Pasaiako Kofradiako lehendakariak atzo jakinarazi zuenez, ontzia urperatzean puztuko zen baltsa, eta hala baieztatzen da baltsak ere solte zihozazela, arauk agintzen duten bezala. Aztarnak agertzean Tejedorrek banan-banan hots egin zien arrantzaleen senitartekoei, «errealitate gordinaren berri emateko». Alabaina, kalte-ordainak kobratzeko prozesua erraztu egingo duela ere jakinarazi zuen. • 10

JAGOBA MANTEROLA



Errege Magoak presoen eskubideen alde

■ ERREGE MAGOAK, Gaspar, Meltxor eta Baltasar, Madrilgo Kongresuaren lehoietako batean ka-teatu ziren presoak Euskal Herriratzea eskatzeko. Kongresuko agintariei ikatza eman zieten, «euren legeak betetzen ez dituztelako» eta «Euskal Herriko hainbat umeren eskakizuna, -euren senitarteko presoak etxetik hurbileko espetxeetara eramatea-, betetzen ez dutelako». • 7

politika

■ Aznar: «Getxokoa bezalako erasoak eta elkarrizketa ez dira bateragarriak» • 8

gizartea

■ Sute baten ondorioz pertsona bat hil da Azpeitian, eta Irunen kalte handia egin du beste batek • 14

europa

■ Kosovo NATO eta OSCE udaberrian borrokak berpiztuko diren beldur agertu dira • 18

kirola

■ Tauk ezinbestekoa du gaur irabaztea Euroligako bigarren faseari ekiteko • 24

kultura

■ Tene Mujika Ipuin Saria Mikel Tabernarentzat • 29

gaur

barkatu
ama

Psicho,

planoz plano kolorez berregindako *remake*-a

Erreportaia: Hainbat artista gazteren lehen pausoak • Elkarrizketa: Andoni Basterretxea

